

TRINTXERPE:

Hondakinak biltzeko sistema berria.

**HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIRAKO ETA
EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2014**



SAIOAREN AKTA

BILERAREN XEHETASUNAK/

PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK

MAHAIA:

Alkatea: Amaia Agirregabiria

Ziengotziak: Miguel Mari Torrea (Trintxerpeko alkateordea) eta Izaskun Biurrun (Antxoko alkateordea)

Bileraren Dinamizazioa: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Susana Martinez (Aztiker Aholkularitza)

Parte hartzaile kopurua 9 pertsona (5 emakume eta 4 gizon)



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Alkateak bertaratutakoei ongi-etorria eman die, prozesuaren zioa eta helburuak aipatuz, eta udalaren aldetik mahaian dauden kideak eta aholkularitza aurkeztu ditu.

2. PROZESUAREN ETA BILERAREN AURKEZPENA

Aztikerreko dinamizatzailleak prozesuaren aurkezpena egin du honako eskemaren arabera: helburuak, xede taldeak, bilerak eta metodologia azalduz. Era berean, gaurko saioaren aurkezpena eta eguneko bileraren helburuak, partaideak, egitura eta metodologia azaldu ditu.

Aurkezpena amaitzeko azpimarratzen da lehen zatian informazioa emango bada ere, bileraren zati handiena eskainiko zaiola partaideek izan ditzaketan galdera edo kezka erantzuteari.

.

3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/

Alkateak eta **Antxoko alkateordeak** sistema ezartzeari buruzko erabakia eta argudioak kokatu dituzte eta **Trintxerpeko alkateordeak** Trintxerperako sistema berriaren ezaugarri tekniko nagusiak (frakzioak, gaiak, bilketa egutegiak, zintzilikarioak, lokalak, ordutegiak, hobekuntzak). Horretan azpimarratu du batzuk lokalak erabiliko dutela hondakinak uzteko, eta besteak zintzilikarioak. Azpimarratu du horiek banatzeko irizpide nagusia dentsitatea izan dela. Irizpide horrekin batera, pasoko zonatan estetika ere kontuan hartu dela esan da. Horrela, zein kale izango diren lokal erabiltzaile esan da, eta zein kale izango diren zintzilikario erabiliko dutenak ere azpimarratu da.

Hiru interbentzio hauek jarraian izan dira, eta honako eskemari erantzun nahi izan diote:

- ✓ Sistema berria noiz, nola eta zein irizpideen arabera erabaki zen.
- ✓ Sistema berria zer dela eta, eta zertarako ezarriko den.
- ✓ Sistema berriak praktikan dituen ezaugarri nagusiak.
- ✓ Sistema berriak Trintxerpen fisikoki, nola gauzatuko den.

Informazio eta azalpena amaituta, partaideen galdera-erantzunen txandara pasa da.

4. HERRITARREN ZALANTZAK ETA KEZKAK KOKATZEA ETA LANTZEA

Herritarren zalantzak eta kezkek jaso dira, txanda irekiaren bidez. Horretarako, aurretik atzera, hurrenkeran, galderak jaso dira, eta mahaiari pasa zaizkio erantzuteko. Mahaiak erantzunda, galderak jasotzen jarraitu da. Galdera hauek jaso eta hiru multzotan sailkatu dira:

- ✓ Zalantzak eta kezkak
- ✓ Ekarpenak eta proposamenak
- ✓ Iritziak

Ondoren alkateak eta zinegotziek izan dute galderei erantzuteko tartea. Jarraian, alkateak argitu ditu erabaki politikoari buruzko galderak eta zinegotziek berriz ezarpen prozesuari buruzko zalantzak eta kezkak.

Jarraian aurkezten den taulan ikusi ahal dira jaso diren balorazio eta iritziak, zalantza edo kezkak eta egin diren ekarpenak:



BALORAZIOAK/IRITZIAK VALORACIONES/OPINIONES
<ul style="list-style-type: none">• Lio gehiegi iruditzen zait niri guzti hau. <p><i>Orain arte hondakinak banatu eta birziklatzen duenarentzat ez du arazorik suposatuko bilketa sistema berriak.</i></p> <ul style="list-style-type: none">• Trintxerpen jendeak ez du Donibane eta Antxon dagoen sistema nahi. "Bulla" asko dago herrian gai honekin, jende gogorra dago hemen.

ZALANTZAK/KEZKAK <i>DUDAS/PREOCUPACIONES</i>	
GALDERAK	ERANTZUNAK
Noiz hasiko da sistema berriaren ezarpena?	Aurten ezarriko da, ahal bezain pronto. Epe batzuk bete behar dira beharrezkoak diren azterketa eta egokitzapenak egiteko, komunitateek zintzilikarioak jartzeko lekuaren erabakiak barne. Udako oporrak ere aintzat hartuko ditugu.
Kontenedore marroirik ez dago? Organikorik ez da bilduko? Nik organikoa bildu nahi dut.	Organikoa kubo marroietan bilduko da. Udalak bi kubo marroi banatuko du etxe bakoitzerako, ez dira erosi behar.
Laranja azalak eta non biltzen dira?	Horiek ere organikoa dira. Organikoa betidanik txerri-jana deitu izan dioguna da.
Herritar bakoitzak edo komunitateak erabakitzen du ze bilketa sistema aukeratu (zintzilikario edo Garbitxoko)?	Komunitate bakoitzari egokituko zaio sistema bat edo beste ezartzea. Horren banaketa Trintxerpeko banaketa geografiko-urbanistikoaren arabera egin da. Hortaz, komunitate gutxi batzuk izango dira zintzilikario edo Garbitxokoen artean erabakitzeo aukera izango dutenak. Zintzilikarioa duten komunitateek zintzilikarioaren kokapena erabakitzeo aukera izango dute, komunitate bakoitzeko bizilagunek adosten badute.
Zergatik daude biltzeko modu desberdinak?	Dentsitate handiko zonaldeetan ulertzen dugu ez dela posible zintzilikariorik jartzea, horregatik gaitzen ditugu Garbitxokoak.
Antxo eta Donibanen sistema berriari beldurra zion jendearen esperientzia nolakoa izan da?	Egia da ezarpenarekin batera iritziak asko aldatzen direla eta hasiera batean dauden beldurrak uxatzen direla. Donibane eta Antxoko esperientziek erakusten digute denbora laburrean normaltasuna nagusitzen dela. Egia da aurkakotasuna agertzen duen jendea badagoela baina, oro har, beldur horiek azkar gainditzen dira praktikarekin batera.
Gaizki egiten bada sailkapena nola bideratuko da? Isunak egongo dira?	Sistema berria da guztiontzat, baita Udalarentzat ere, eta, honegatik, egokitzapena beharrezkoa da guztiontzat. Udalaren asmoa isunik jarri behar ez izatea da. Frakzioen banaketa gaizki egiten denean oharrak uzten zaizkio bizilagunari zer egin duen gaizki jakin dezan eta hobeto egin dezan. Gaizki "nahita" edo "apropos" egiten denean aktibatuko lirateke isunak, borondate txarra erakusten duenean gaizki egiten duen horrek.

Bukatzeko informazioaren inguruko hainbat aspektu azpimarratzen dira.

Prozesuarekin bukatutakoan fitxak prestatzen hasiko gara zintzilikario eta Garbitxokoen kokapenaren inguruan. Hauek herritar guztiei banatuko zaizkie (udalak komunikatuko du).

Ezarpenarekin hasi aurretik astebeteko epea zabaltzen herritarrek materiala jaso dezaten (kuboak, poltsak, informazioa...).

Deialdia egingo dugu materiala jasotzeko. Ziurrenik kaleka egingo dugu deialdia.

Gerora Informazio Bulegoa zabalik egongo da, herritarrek dituzuen kezak eta zalantzak argitzeko.

5. BILERAREN BALORAZIOA/

Partaideei bilera baloratzea eskatu zaie. Partaide batzuk bilera amaitu aurretik joan dira, eta ez dute baloraziorik utzi. Jarraian azaltzen da jasotako balorazioa.

	Bilerako giroa <i>Ambiente de la sesión</i>	Erabilitako metodologia <i>Modo de trabajo</i>	Landutako edukia <i>Contenidos creados</i>
	XXXXXX	XXXXXX	XXXXXX
			
			

Bilera bukatutzat eman da TRINTXERPEN, 2014ko ekainaren 25an, gaueko 20.30ean.

HURRENGO HITZORDUAK:

GAZTELERAZKO BILERA

- **DATA:** ekainaren 26an
- **LEKUA:** Udal aretoa
- **ORDUA:** 10:00etan

Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!

!

